

Funtsezko baliabideak

Enpresa aurrera eramateko, kontuan hartu behar diren funtsezko baliabide batzuk daude. Gure enpresa, lokal bat edukiko du, ideiak, erronkak, harremanak eta diseinuak aurrera eramateko. Horregatik, espazio horretan beharko dugun guztia eskuratu beharko dugu, hau da, mahia, eserlekuak, biltegiak, apalategiak...

Giza baliabideei dagokionez, pertsonen beharrak aztertuko ditugu, hau da, produktuak egiterakoan, gizartearen eskakizunak kontuan hartuko ditugu. Hala ere, ingurumen osasuntsu baten beharra guztiona da, eta guk horri modu eraginkor batean konpontzen saiatuko gara, plastikoa gure inguruetik ateratzen.

Bestalde, lortuko dugun diru guztia gordetzeko, finantza baliabide batzuk eduki beharko ditugu. Banku kontu bat sortuko dugu diru guztia gordetzeko eta online zerbitzu bat ere izango dugu, bezeroak gure ideiak ezagutu dezaten eta baten bat interesatuta balego, gukin harremanetan jartzeko.